

Nola erabili wiki bat

Wikipediak egin du ezagun edukiak argitaratzeko formatu hori, eta lagundu egiten du taldean lan egiten



Wikipediak zortzi urte bete zituen urtarrilaren 15ean, eta egunetik egunera gero eta handiagoa eta osatuagoa da, jendeak borondatez egiten duen ekarpenari esker. Izan ere, edozein irakurlek zuzendu dezake artikuluetan ageri den informazioa okerreko daturen bat antzemanaz gero. Dohain handi hori, dena den, ez da entziklopedia ireki eta doakoarena soilik: wiki guztien ezauzgarria da. Formatu aproposa da, beraz, talde-lanean aritzeko, eta oso erabilgarria gerta daiteke irakaskuntzan eta lan munduan baliatzeko.

Ohiko web-orriek ez bezala, wikiek bisitariari aukera ematen diete bertan ageri diren edukiak aldatzeko moldatu beharreko zerbait ikusten badute. Web-orrietan, hauxe izaten da ohiko egitura: pertsona batek edo batzuek artikulua bat sortu, eta irakurleek modulu bereizi batean egin dituzte oharrak edo iruzkinak. Wikia interaktiboagoa da, eta testu nagusian bertan biltzen dira irakurleen ekarpenak. Formatu honek orri bat edo gehiago izaten ditu elkarri lotuta, ohiko guneek bezalaxe, nahiz eta itxura grafikoa oso soila izan ohi den, Internet hedatzen hasi zen garaia oroitarazten duena.

Hobeki antolatze aldera, erabiltzaileek egin dituzten aldaketa guztiak erregistro batean gordetzen dituzte wikiek, eta bestelako informazio baliagarri batzuk ere bai: zein ordutan eta egunetan egin diren, nork egin dituen... beste eremu batean, berriz, aldaketak zergatik egin diren adierazteko modua ematen du. Era horretan, jendeak alderatu egin ditzake bertsio bat eta bestea, eta tes-

tua findu, eta, nahi izanez gero, orrialde horrek une jakin batean zuen egoerara ere itzul daiteke. Gainera, eduki bakoitzarentzat eztabaida-orri bat izaten da, gairen baten inguruan desadostasunak sortzen direnerako. Gune horretan, erabiltzaileek beren ikuspuntuaren berri eman dezakete eta iritzia azaldu.

Eduki bat aldatzen denean, erabiltzaileek adierazi egin dezakete garrantzi gutxiko aldaketa izan dela, besteek jakin dezaten ez duela merezi testua berrikustea. Aukera hori oso egokia da ortografia-akatsak eta puntuazio-hutsegiteak zuzentzeko. Bestalde, erabiltzaile bakoitzak bere orria izaten du, eta haren gainean klik eginez sar daiteke bertara.

Wikiaren sintaxia

Wiki batean idazten denean, zenbait alderdi hartu behar dira kontuan. Lehenik eta behin, estandarizatu gabeko sistema sintaktiko bat erabiltzen duela, Wikitext delakoa, eta ez dela HTML-ren berdin-berdina. Hona hemen kontuan hartzeko zenbait jarraibide MediaWiki programan oinarritzen diren wikiak erabiltzeko (horixe da programarik ezagunenetakoa, Wikipediak ere hori erabiltzen du eta).

Gai jakin baten inguruko orri bat sortzeko asmoa dugula adieraz dezakegu. Horretarako, lotura egin behar da lehendik sortua balego bezala, [[landu nahi den gaiaren izena]] jarrita. Ondoren, ikuspegi normalean, ohiko kolorea ez den beste batekin agertuko da lotura, eta nahi denean idatzi ahalko da bertan.

Goiburuen eta tituluen letra neurriak, testua antolatzeko hierarkiak ezartzen dituztenak, “=” ikurrarekin sortzen dira.

Zenbat eta “=” gehiago jarri tituluen aurretik eta ondotik, orduan eta txikiagoa izango da goiburua. Ikur bakarra jartzen bada aurretik eta beste bat atzetik, onartzen den neurri handiena izango du goiburua. Hitzaren ondoan “=” ikurrik ageri ez bada, testu barreneko neurria emango dio letzari.

Erraza da wiki barranean dagoen beste orri batekin lotura egitea.

Haren titulua jarri besterik ez da egin behar, “[[“]]” era horretako kako zuzenen artean. Tituluan ageri ez den hitz batekin egin nahi badugu lotura, hauxe idatzi behar da: “[[orriaren titulua|loturaren izena]]”

Orri bateko atal jakin batekin soilik egin nahi bada lotura, traolaren sinboloa (#) erantsi behar zaio, eta ondotik atalaren izena.

Adibidez, “[[Internet#Historia]]”.

Wikitik kanpo dagoen webgune batekin lotura egiteko,

kako zuzen bakarraren barranean idatzi behar da helbidea, eta, ondoren, loturari eman nahi zaion izena. Adibidez, “[http://www.consumer.es Eroski Consumer]”. URLa soilik idatziz gero, oin-oharrak sortuko genituzke, testuari atxikiak eta hurrenkeran jarriak, “[1]” zenbakitik hasita (programak zenbakitzen ditu).

Eztabaidarako orrietan egin-dako oharrak sinatzea eta horiei data jartzea ere oso erraza da

“~” ikurra erabiliz. Lau aldiz jarraian idazten bada (~~~~), wikiak automatikoki eranstean du egilearen izena eta idazkiaren data eta ordua. Hiru aldiz jarraian idazten bada (~~~), izena soilik agertuko da, eta bost aldiz eginda (~~~~~), data eta ordua baino ez.

Nola sortu wiki bat

Blogekin gertatzen den bezala, sistema automatikoak erabiltzea da errazena wiki bat sortzeko era, erabiltzailea gidatu eta prozesua sinplifikatu egiten baitute. Hori da biderik egokiena formatu honekin oso trebatuta ez dauden erabiltzaileentzat.

Zerbitzu bat baino gehiago daude: Wikia, esaterako, direktorio osatua da, eta gai beraren inguruko informazioa ez bikoizteko moduan egituratua dago; Webpaint-ek, berriz, baimen-sistema bat dauka, eta horien bidez, sortzaileak erabakitzen du nork eta nola molda ditzakeen edukiak; PBWiki doakoa da hiru erabiltzailek edo gehiagok erabiliz gero; Wikidot-ek aukera interesgarriak eskaintzen ditu: wikia nork bere domeinuan sor dezake edo erabiltzaileei askatasuna ematen die haien iragarkiak jartzeko; eta Wikispaces ere hor dago, zeinak doan eskaintzen baitu oinarritzko bertsioa (trukean, publizitatea izaten du). Gune horiek konfiguratzeko erraza da, blogen arloan Blogger edo WordPress izan daitezkeen bezainbat.

Bestalde, wiki askok –Webpaintek eta Wikispacesek, esaterako– WYSWYG editore bat txertatu dute (“Ikusten duzuna eskuratzen duzu”, horixe esan nahi dute ingelesezko sigla horiek), eta horrekin, wikien berezko sintaxiaren itxura ordezkatu eta testu-prozesadoreak balira bezala erabiltzen dira. Horri esker, are errazagoa da formatu hau erabiltzea.

Beste bidea nekezagoa da, tokia alokatu behar delako zerbitzari batean; adibidez, *hosting* partekatua batean. Ondoren, programa bat eta hari dagokion datu-basea instalatu behar izaten dira, eta konfiguratu. //